



Resolución de 9 de marzo de 2012, del Director de Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda, por la que se establecen nuevos plazos de presentación de los modelos de documentación estadístico contable a presentar por las Entidades de Previsión Social Voluntaria del País Vasco.

La Ley 25/1983, sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria, estableció, en su artículo 20, el ámbito de la actividad de control y seguimiento de tales instituciones, incluyendo, entre otras, la obligación de presentar, ante el Departamento correspondiente, los balances, cuentas de resultados y otros documentos que les fueran requeridos. En su artículo 15.4 establecía, asimismo, que la asamblea general ordinaria, que aprueba las cuentas, se reuniría obligatoriamente dentro del primer trimestre después del cierre del ejercicio.

En su desarrollo, el Decreto 87/1984, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley reguló, en su artículo 46, la manera de formular aquel seguimiento de la actividad y estado económico-financiero de la Entidad con el fin de velar por la permanencia de su solvencia. En concreto, estableció que las Entidades deberán presentar, cada año, en los modelos normalizados que establecerá la Dirección competente, Balances al 31 de diciembre del año anterior, Cuentas de Resultados junto con el detalle específico de gastos de administración y valoración de los activos y reservas. Asimismo, se presentará en modelo normalizado el número de prestaciones otorgadas, el movimiento de los asociados durante el año y otros datos o documentos que se puedan reclamar.

Hasta el presente la información a aportar por las Entidades de Previsión Social Voluntaria, y los plazos para presentarla, están regulados por la Resolución de 24 de marzo de 2011, del Director de Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda, por la que se actualizan y aprueban los modelos de documentación estadístico contable a presentar por las Entidades de Previsión Social Voluntaria del País Vasco.

No obstante lo anterior, con fecha 6 de marzo de 2012 se ha publicado en el Boletín Oficial del País Vasco la Ley 5/2012, de 23 de febrero, sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria, que ha ampliado, en su artículo 50.3, el plazo para la celebración de la asamblea general ordinaria en la que se deben de aprobar, entre otras cuestiones, las cuentas anuales. Como quiera que la citada Ley ha entrado en vigor el día 7 de marzo de 2012, surge la necesidad de modificar y actualizar los plazos de presentación de los modelos normalizados a que hacía

referencia el artículo 46 del Decreto 87/1984 y que deberán presentar las entidades. Decreto, este último, vigente en lo que no se oponga a la Ley y mientras no se apruebe y publique el desarrollo reglamentario correspondiente.

Por lo expuesto, en base a las competencias atribuidas en el Decreto 87/1984 en relación con el Decreto 568/2009 y en cumplimiento del resto de normativa de aplicación,

DISPONGO:

Primero: Nuevo plazo de presentación de la documentación estadístico contable a presentar por las Entidades de Previsión Social Voluntaria del País Vasco.

Se modifica el apartado quinto de la Resolución de 24 de marzo de 2011, del Director de Finanzas del Departamento de Economía y Hacienda, por la que se actualizan y aprueban los modelos de documentación estadístico contable a presentar por las Entidades de Previsión Social Voluntaria del País Vasco.

A partir de la vigencia de la presente Resolución, los plazos para la presentación de la documentación estadístico contable serán los siguientes:

La información anual a presentar por todas las Entidades de Previsión Social Voluntaria a partir del cierre del ejercicio 2011, deberá realizarse en el periodo comprendido entre el 15 de abril al 15 de mayo del año posterior correspondiente.

La información trimestral a presentar por las Entidades que integren planes de previsión, a partir del cierre del ejercicio 2011, deberá realizarse:

- la documentación relativa al primer trimestre del ejercicio, que recoge datos relativos a los tres primeros meses del ejercicio, deberá remitirse en el periodo comprendido entre el 15 de junio al 15 de julio, ambos incluidos.

- la referida al segundo trimestre, que recoge datos del primer semestre del ejercicio, del 1 de septiembre al 30 de septiembre, ambos incluidos.

- la relativa al tercer trimestre, con datos de los nueve primeros meses del ejercicio, del 1 de noviembre al 30 de noviembre, ambos incluidos.

- y la referida a la provisional del cuarto trimestre, que recoge datos provisionales referidos al ejercicio terminado, del 1 de febrero al 28 ó 29 de febrero, del año en curso.

Segundo: Efectos y publicidad.

Los nuevos plazos establecidos en la presente Resolución, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y en la página Web del Departamento de Economía y Hacienda, y se



comunicará a las entidades interesadas y a la Federación de Entidades de Previsión Social Voluntaria de Euskadi, se comenzarán a aplicar con respecto a la documentación a aportar a partir de las cuentas anuales correspondientes al 31 de diciembre de 2011.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de marzo de 2012.

Fdo.: Miguel Bengoechea Romero

M.Bengoechea
DIRECTOR DE FINANZAS.



Ebazpena, 2012ko martxoaren 9koa, Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantzetako zuzendariarena, EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek aurkeztu beharreko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioaren ereduak aurkezteko epe berriak ezartzen dituena.

Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legeak, 20. artikuluan, erakunde horien kontrol- eta segimendu-jardueraren eremua ezarri zuen eta, besteak beste, bidezko sailari balantzeak, emaitzen kontuak eta eska dakizkien bestelako agiriak aurkezteko beharra azaldu zuen. Halaber, 15.4 artikuluan ezarri zuen ohiko batzar orokorrak, kontuak onesten zituenak, nahitaez bildu behar zuela ekitaldia itxi ondorengo lehenengo hiruhilekoan.

Hori garatuz, aipatutako legearen araupidetza onetsi zuen 87/1984 Dekretuak, 46. artikuluan, Erakundearen jardueraren eta ekonomia- eta finantza-egoeraren jarraipena egiteko modua arautu zuen, kaudimenari eutsiko ziola zaintzearen. Zehatz azalduta, bertan zehaztu zen Erakundeek, eskumena duen Zuzendaritzak ezarritako eredu normalizatuei jarraituz, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituztela urtero: aurreko urteko abenduaren 31ko balantzeak, emaitzen kontuak eta administrazio-gastuen berariazko xehetasuna, eta aktibo eta erreserben balorazioa. Halaber, emandako prestazioen kopurua, kideen urteko mugimendua eta eska daitezkeen bestelako datu eta agiriak ere aurkeztu beharko dira, eredu normalizatuari jarraituz.

Orain arte, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek aurkeztu beharreko informazioa, eta hori aurkezteko epeak, EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek aurkeztu beharreko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioaren ereduak eguneratu eta onesten dituen Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantzetako zuzendariaren 2011ko martxoaren 24ko Ebazpenean egon dira araututa.

Hala ere, 2012ko martxoaren 6an, Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeen otsailaren 23ko 5/2012 Legea argitaratu da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, horrek, 50.3 artikuluan, luzatu egin du besteak beste urteko kontuak onartzeko ohiko batzar orokorra egiteko epea. Aipatutako lege hori 2012ko martxoaren 7an sartu zenez indarrean, aldatu eta eguneratu egin behar dira 87/1984 Dekretuaren 46. artikuluak aipatzen zituen eta erakundeek aurkeztu behar dituzten eredu normalizatuak aurkezteko epeak. Dekretu hori indarrean dago legearen kontra ez dagoen guztian eta bidezko erregelamendu-garapena onetsi eta argitaratzen ez den bitartean.

Azaldutakoa dela eta, 87/1984 Dekretuan 568/2009 Dekretuarekin lotuta emandako eskumenak erabiliz, eta aplikatu beharreko gainerako arauak betez, honakoa

XEDATU DUT:

Lehenengoa: EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek aurkeztu beharreko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa aurkezteko epe berria.

Aldatu egin da Ekonomia eta Ogasun Saileko Finantzetako zuzendariaaren 2011ko martxoaren 24ko Ebazpenaren bosgarren atala. Ebazpen horrek EAEko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek aurkeztu beharreko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioaren ereduak eguneratu eta onetsi zituen.

Ebazpen hau indarrean dagoenek aurrera, honako hauek izango dira estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioa aurkezteko epeak:

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztiekin 2011ko ekitaldia ixten denetik aurrera aurkeztu beharreko urteko informazioa hurrengo urteko apirilaren 15etik maiatzaren 15era bitartean aurkeztu beharko da.

Aurreikuspen-planak osatzen dituzten erakundeek 2011ko ekitaldia ixten denetik aurrera aurkeztu beharreko hiruhileko informazioari dagokionez, honela egin beharko da:

- ekitaldiko lehenengo hiruhilekoari dagokion dokumentazioa, ekitaldiko lehenengo hiru hilabeteetako datuak biltzen dituena, ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean, biak barne, bidali beharko da.

- bigarren hiruhilekoari dagokion dokumentazioa, ekitaldiko lehenengo seihibileko datuak biltzen dituena, irailaren 1etik 30era bitartean, biak barne.

- hirugarren hiruhilekoari dagokiona, ekitaldiko lehenengo bederatzi hilabeteetako datuak azaltzen dituena, azaroaren 1etik 30era bitartean, biak barne, bidali beharko da.

- eta laugarren hiruhileko datuak biltzen dituena, amaitutako ekitaldiaren behin-behineko datuak biltzen dituena, uneko urteko otsailaren 1etik otsailaren 28 edo 29ra bitartean.

Bigarrena: Ondorioak eta publizitatea.

2011ko abenduaren 31ri dagozkion urteko kontuetatik aurrera aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez hasiko dira aplikatzen Ebazpen honetan ezarritako epe berriak. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren web gunean argitaratuko da, eta erakunde interesunei eta Euskadiko Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundeen Baterakundeari jakinaraziko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 9a.

Izpta.: Miguel Bengoechea Romero

M. Bengoechea
FINANTZETAKO ZUZENDARIA.